

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Trafiko-kanpaina integrala, Gabonetan bide-segurtasuna zaintzeko

*Abenduaren 21etik urtarrilaren 7ra, Foru Poliziak, Guardia Zibilak eta Udaltzaingoak kontrolak egingo dituzte Nafarroako errepide-sarean*

Osteguna, 2017.eko abenduak 21

Gaurtik 2018ko urtarrilaren 7ra arte, Foru Poliziak, Guardia Zibilak eta Udaltzaingoak trafiko-kanpaina integralean hartuko dute parte, Nafarroako errepideetan gorabeherak murrizteko.

Kanpainen zehar, abiadura-, alkoholemia- eta droga-kontrolak, segurtasun-uhalaren eta haurrak lotzeko sistemaren kontrolak eta gidatzean izaten diren distrazioen kontrolak egingo dira.

Datozen egunetan joan-etorri gehiago egingo direnez, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren (DGT) jarraibideei jarraikiz, trafiko-kanpaina berri bat jarri da gaur martxan.

Nafarroako errepide-sarean ibiliko diren gidariak Foru Poliziaren, Guardia Zibilaren eta Udaltzaingoaren kontrolekin egingo dute topo. Kanpaina integral honetan, gidatzean egiten diren mota guztietako arau-hausteak kontrolatuko dira.

### Abiadura

Trafiko-kanpaina integralaren arduradunek gogorarazi dutenez, errepidean gertatzen diren istripu hilgarrien % 29an, abiadura izaten da faktore errepikatuenetakoa; beraz, gogorarazi dute abiadura egokian joanez gero trafiko-istripuetako heriotzen ia laurdena saihestu daitekeela.

### Alkohola eta drogak

Alkoholaren eraginpean gidatzeari dagokionez, nabarmendu dute ezen, alkoholemia-tasa legez baimendutakoaren barruan badago ere, trafiko-istripua izateko arriskua handitu egin daitekeela; beraz, tasa seguru bakarra % 0,0 da.

### Segurtasun-uhala

Azaroan egin zen trafiko-kanpainan, ikusi zen gidarien % 98k baino gehiagok behar bezala erabiltzen dituela segurtasun-uhala eta haurrak lotzeko sistemak.

Hala eta guztiz ere, poliziek behin eta berriz esaten dute uhala bizi-asegurua dela, eta, horrenbestez, gogorarazi dute ez dela hartaz ahaztu behar, eta beti eraman behar dela lotuta, bai errepidean, bai hirian.

### Distrazioak

Gidatzean, distrazioa gertatzen da autoaren barruko edo kanpoko gertaera, jarduera, objektu edo pertsonaren batek gidariaren arreta bereganatu eta gidatzeko zereginetik desbideratzen duenean.

Distrazio-kausa ohikoenetakoak dira mugikorra erabiltzea, gidatzean erretzea, eta nabigazio-sistemak edo GPSa behar ez bezala erabiltzea. Gidatzean mugikorra erabiltzen bada, laukoiztu egiten da istripua izateko arriskua; erretzen bada, 1,5 bider handitzen da arrisku hori; eta, gidatzean GPSa programatzen bada, sistema horiek laguntza izatetik arrisku argia izatera pasatzen dira. Segurtasunez zirkulatzeko, gidatzeko zereginetan jarri behar da arreta osoa.